

2.3. gaia

Ariketak

Baldintzazko sententzia. Ariketak

1. Bi aldagai osoko emanda, balio handiena lortzeko aginduak idatzi.

2. I, J, K eta L aldagai osokoen ondoko balioak emanda:

I = 6 J = 7 K = 11 L = 11

esan zer idatziko duen ondoko programak:

```
if I < J then
    if K <> L then
        Print "ABC"
    else
        Print "DEF"
    end if
end if
if I >= J then
    Print "GHI"
else
    Print "JKL"
end if
```

3. Ezkerreko zutabeko adierazpen bakoitza dagokion eskubiko adierazpenarekin lotu:

- | | |
|-----------------------------|--|
| a. $(X < Y)$ and $(Y < Z)$ | 1. not $(X <> Y)$ and $(Y = Z)$ |
| b. $(X > Y)$ and $(Y >= Z)$ | 2. not $((X <= Y)$ or $(Y < Z))$ |
| c. $(X <> Y)$ or $(Y = Z)$ | 3. $(Y > Z)$ or $(Y = Z)$ or $(X = Y)$ |
| d. $(X = Y)$ or $(Y >= Z)$ | 4. not $(X >= Y)$ and not $(Y >= Z)$ |
| e. $(X = Y)$ and $(Y = Z)$ | 5. not $((X = Y)$ and $(Y <> Z))$ |

4. Nota bati (0-10 tarteko balio osokoa) dagokion nota idatzi letraz (suspentsoa, aprobatua, ongi edo bikain).

5. X eta Y bi aldagai osoko emanda, beren balioak goranzko ordenan jarri (Xek txikiena eta Yk handiena)

6. Hiru aldagai osoko emanda, beren balioak goranzko ordenan jarri.

7. Programa bat egin, XX mendeko egun bat emanda 3 osokoen bidez (urtea, hila, eguna), hurrengo egunaren data lortuko duena.

8. Programa bat egin, XX mendeko egun bat emanda 3 osokoen bidez (urtea, hila, eguna), aurreko egunaren data lortuko duena.

9. 5 digituko zenbakia emanda, esan kapikua den.

10. Bi objektu A eta B mugitzen ari dira lerro baten gainean. Kalkulatu A objektuak egingo duen distantzia B objektuarekin topo egin arte. Kontutan hartu beharko dira abiadura eta zentzu desberdinak.

Hasierako datuak:

- * A eta Bren abiadurak. Zentzua
abiaduraren zeinuaren bidez emango da.
- * A eta Bren arteko distantzia.

```
----- AbiaduraA    ----- AbiaduraB
|  |  --->    |  |  --->
| A |          | B |
-----
```

11. Ondoko programa zatia hobetu:

if Puntuak > 70 then

Print "Bikain"

if Puntuak < 30 then

Print "Gaizki"

if (Puntuak >= 70) and (Puntuak <= 30) then

Print "Normala"

12. Suposatu pakete bat bidaltzeko prezioen kalkulua ondoren esaten den eran egiten dela. Taula hau erabiliko da:

<u>Pisua (gramotan)</u>	<u>Dirua (pezetatan)</u>
15	60
30	110
45	155
60	180 + 10 pezeta 1000 kilometroko
75	200 + 15 pezeta 1000 kilometroko

Programa bat egin hori kalkulatzeko. Datua paketearen pisua izango da, eta pisua 45 gramo baino handiagoa bada, orduan distantzia ere jakin beharko da.

13. Programa bat egin 2 zenbaki oso eskatzeko eta, ondoren, 4 aukera hauen artean aukeratzen utziko diguna:

- a) 2 zenbakien batura lortu
- b) 2 zenbakien kenketa egin
- c) 2 zenbakien biderkadura lortu
- d) 2 zenbakien zatiketa lortu